

#### 4. atala

Gure hiru lagunak ez zeuden lasai, baina arratsalde benetan mugitua izan zuten bizitako emozio guztiei egotzi zieten beraien ezinegona. Maiaren gonbidapenari helduta uretan sartu zen Ilargi. Urduri sentitu zen hasieran baina astiro-astiro lagunaren eskuei helduta, lasaitzen hasi zen eta azkenerako bere kaxa ere ibili zen igerian apur batean.

Afalostean, laster oheratu ziren hirurak, Ilargiren logelan atondutako ohe inprobisatuetan. Arratsalde hartan bizitakoak gogoratzen hasi ziren orduan.

- Zer pena gure etxolarena. – Hasi zen Lur – Berriz eraiki behar...
- Ez dakit haritz zaharrak dagoeneko eutsiko dion – hausnartu zuen Ilargik boz goraz.
- Jo! Ba ni zur eta lur nago oraindik zurekin Ilargi! – Maia ohe gainean erdi eserita zegoen – Lamia bat zara! Lamiak bazirenik ere...
- Izena duenak... - Hasi zen Lur
- Izana du! – Amaitu zuen Ilargik. – Egunerokoan murgilduta gaude-nean ez gara ohartzen munduan zer gertatzen den, zenbat izaki ezberdin bizi garen, bakoitza nola bizi den, zer egin lezakeen... begi hutsez ikusten duguna baino handiagoa da mundua.
- Bada munduari beste begi batzuekin begiratzen ikasi beharko dugu orduan. Gora begira etzan zen Maia ohean.
- Bai... ikusten ez dugunak beldurtu egiten gaitu eta. - Lurrek leihotik begiratu zuen pentsakor.

Gaua ohi baino ilunagoa zela iruditu zitzaion Lurri. Etxe inguruko basoak galduak zituen ordurako kolore guztiak, baina zeruan ere ez zen apenas izarrik ageri eta zuhaitzen enbor eta adarrek itxura mehatxagarria hartu zuten. Arratsaldearen hasieran sentitutako haize hotza sartu zen orduan logelara eta Ilargi eta Maia ere leihora hurbildu ziren.

Bat-batean basoaren erdian azaldu ziren hiru lagunak eta parez pare, erraldoi, zuhaitzen adarrak baino gorago, bi begi urdin!

\_\_\_\_\_ Nola jarraituko du?

